

HERRI EXISTENTZIAZ

Orio (2006.1.31)

Euskal Herria zer den esan nahi dugunean, ohiko da eta dugun adimena bitarteko, definitzera jotzen dugu. Nahiz eta ondo saiatu definitzen, ez ginateke inoiz erabat zer den esatera ailegatuko, ez baita geure adimena herri konkretu baten existentzia, Euskal Herriarena esate baterako, adierazteko gai. Aspaldiko filosofoak berehala ohartu ziren horretaz; adimenak izaki partikularra definitzean, zentzuek atzematen dutena bere horretan utziz, teoria orokorretara jotzen baitu. Hau da, sentipen organoak abiapuntuak dira ezagutzaren prozesuan, baina adimenak parte hartzean existentzia konkretua bertan behera uzten du. Beraz, adimenak existentzia partikularrean dagoen esentzia jasoz; eta bertan aurkitzen den esentziatik, bestelako modurik ez baitago, teoria mailara edo teorizatzerara jotzen du, hau da, ezagutza unibertsala, orokorra eraikitzen.

Esate baterako, "Herria" esentzia modura hartuz gero, bere existentzia esentzia soilik litzateke; aldiz, herri honek, horrek... aurrekoak ez bezalako existentzia izango dute, herri partikularren dagokiona alegia. Bestalde, herri partikularren beste ezaugarriak ere deskriba daitezke, horiek ere ezaugarriak lirateke, besteak beste. Hor dago gakoa, herri konkretu batean edo bestean, aipu ditugun existentzia ezberdin horiek, teoria mailan bakarrik bereizi daitezkeenak, batera ematen dira. Herriak badu bere existentzia eta, hain zuzen, horregatik herri bakoitza era ezberdinez adierazten da.

Inperialistek, berriz, zapaltzen duten geure herria estali nahian, diskurtso teorikoaz baliatzen dira geure herriaren izate politikoa ukatzeko. Diskurtso inperialistak, hori dela eta, nabarmen adierazten dena ukatuz, ezinezkoa dena definitzera jotzen dute. Ezinezkoa dena, hau da, herri esentzia dena definitzen denbora emango dute, oso azkarrak bailiran, betiere "herri" kontzeptua bere mesedetan jartzeko, noski. Jakin dakigunean esentziak defini ezinak direla, eta herri baten edo bestearen existentzia behatzez edo...seinalatuz bakarrik adierazi daitekeela. Geure herria, ordea, begi bistakoa da oraindik indarrean dago, zeresana franko ematen baitu eta, hori besterik gabe, sasi teorizazio guztiak botatzeko nahiko arrazoi frogatua da.

Geure kezka eta interesa berezia geure herria da. Gure herriaren izatea aztertzean, eta erabiliko den prozedura ez da egokia izango, teorizazioa eguneroko errealitatean ez bada oinarritzen. Horrek guztiak, ondorio batera eramane gaitu. Askatasunaren argibidea teoria eta praktika bat eginik baino ez dugula lortuko. Inperialistek ere, helburuak aurkakoak izanda, eta horretarako herri errealitatea estali beharra izan, teorizatzea ezinbestekoa dute. Inperialismoa estaltzeko, zer hobe geure herriaren existentzia ukatzea baino? Eta bide berean, unibertsitate eta botere ideologiko osoa ipiniko dute. Inperialisten egitura politikoa absolutu eginez, geure herri existentzia ezabatzea dute helburu. Inperialisten egitura politikoa hain nabarmena izanik, agerian uzten du berriz estali nahi dutena. Kontuz! Herri zapalduok, holakoetan, geure ideologia sendotuz, inperialisten eraso ideologikoari aurre egin baino ez

diogu egin behar. Horrek, ondorioz, prestakuntza eta lanketa teorikoa handiagoa eskatzen du.

Herria da den bezalakoa; ez soilik zenbait ezaugarri dituelako, botere politiko bat delako baizik. Botere politiko dugulako gara, horren ezean ez ginateke izango. Geure botereak, hots, geure herriak ezaugarriak ditu, geuk ditugunak, alegia. Geure botereaz inperialistek nahi duten bezala geurekin joka ezin izatea, geure indarra kontutan hartzea eramaten die, beraz nolabaiteko indarra azaltzen dugu. Hain zuzen, inperialistek euren helburuak, nahiz indarra handiagoa izan, ezin dizkigute nolana betarazi. Herri indarra edo boterea bat da, eta hala eragiten du inperialisten indarren aurka. Herri boterearen baitan, maila abstraktuan bada ere, barne indarrak bereizi ditzakegu: kulturala, linguistikoa, ideologikoa, ekonomikoa, erlijiosoa, militarra, instituzionala... eta bereziki politikoa. Barne indar horiek era bateratuan eragiten dute, eta benetan eraginkorrak izan nahi badugu indar ezberdin horiek behar den bezala organizatzea eta erabiltzea beharrezkoa da. Herri boterea zelako azpi botereaz osatua dagoen jakitea ere ezinbestekoa da, horien ezagutza ezinbestekoa baita erabilpenen egokia egin nahi badugu.

Geure herriak, beste herriak bezala, badu bere identitatea. Alabaina, herri baten identitatearen ezagutza ez da edozelako eginkizuna. Herriak betiere bere identitatea eusten eta garatzen saiatzen dira. Jakina da, geure identitatea aspaldikoa izateak, horrek arto senti arazten gaituela. Orain, aitzitik, ez da horrela, eta badugu arrazoirik identitatea urtzen ari zaigula esateko. Hala bada, herri bizitza boteretsua indartzen dago gakoa. Herriak, herri dinamikaren bitartez, garai eta egoera bakoitzaren halabeharreko premiei erantzunez identitatea sortzen du. Horren ezean, herria desagertzen, hiltzen da. Zehaztasunez ez badakigu ere, zerk sortarazten duen identitate sendo bat izateak, seguru gaude, herriak – botereak- baduela horretan zerikusirik. Izan ere, Herria bat da, osotasun bat, une eta egoera bakoitzean botereak aurpegi bat edo beste erakutsiz dirauten duena. Botereak, hain zuzen, herriaren azaleko aurpegia azalarazten eragiten du, identitatea azaleko aurpegia baino ez litzateke izango, beraz. Inperialistak geure identitatean eragiten saiatzen dira, beti bezala geure identitatea gutxiesten eta lekuz eta denboraz kanpo dagoela esanez, noski. Honetan ere inperialistek identitate absolutua ezarri nahi digute, geurea nonbait aurrerakoia edo auskalo zer ez dela esanez. Herri zapalduok geure nortasuna harrotasunez eta gogor eutsi behar dugu, eman nahi diguten imajinari aurre eginez. Geure identitatea sendotu nahi dugu garaiko eskakizunen arabera inongo konplexurik gabe. Geure identitatea harro eta tinko eutsiz, ekin!

Identitatearekin batera, herri bat garenez, helburu batzuk ditugu eta horiek burutzean inperialistekin egiten dugu aurre. Aurkako helburuak ditugu, alegia. Irtenbide bakarra, geure indarrez inperialismoa gainditzea, hain zuzen. Inperialismoak geure herria konkistatu zuenetik ez dago bakerik, egongo ere horretan jarraitzen duen bitartean. Geure borondatea aspaldikoa da, kanpo erasoei aurre egiteko ere geure Nafarroako estatua eraiki izan genuen, ondorengo konkistak ere ez dira oztopo izan geure eguneroko helburuei eta horiek egiazki lortzeko Estatua berreskuratzeari uko egiteko. Geure borondatea zelakoa izan den historiak argi erakusten digu, eta bide berean jarraitzen dugu. Herri bezala garatzen, geure helburuak

betetzen inolako borondatea azaldu eta ipini dugu. Hori bai dela nabaria. Inperialismoak oztopatu gaitu bide horretan. Geure aukera, askatasunaren bidea, nahiz inperialistek aukera horretan jarraitzeagatik odolez ordaintzen diguten, geure borondatez daramagu aurrera.

SUBIRANOTASUNA

Askatasunaren bidean inperialismoa da traba bakarra. Geure herriaren autodeterminazioa ez da oraingoa; historiaren zehar eta, orain ere, bere helburuak eta nahiak nabarmenki erakutsiz, hau da, askatasunaren aukera eginez auto determinatu da. Inperialismoa ikusi nahi ez duenak, nekez ikusiko du, noski, gure askatasunaren egarria, hau da, geure autodeterminazio bidea. Askatasunaren alde ekiten duelako auto determinatzen da, geure herriak bere buruaren autobidean, borondate librez egin duen aukera mingarri horretan, nahiko indar jartzen ari da. Inperialismoa askatasunaren egarria mingosten eta itotzen duen herri ukatzaile bakarra jarraitzen du izaten. Geure askatasunaren aukera librea da, inperialismoaren izate bera ukatzen duen bakarra, hain zuzen. Horregatik autodeterminazioaren ukatzailea bakarrak inperialistak dira.

Ikusi dugunez, geure herriak bere helburuak, askatasunaren bidea aukeratu duelako, auto determinatu da. Herria definizioz subirano da. Herri izatetik datorkio, beraz, horrelako auto jarduera guztiak eztabaidagarriak ez izatea. Edota herria subirano izanik beregain ez du berea ez den beste erabakirik onartzen. Herria bera da subirano bakarra. Geure herriak historiaren zehar, betiere bere burua subiranotzat harturik, aukera librean egiten joan da, hau da, bere burua auto determinatu du. Herriak beren buruak auto determinatzeko subiranoak dira. Hain zuzen, herria bere buruaz subirano denez, librea da. Subiranotasuna eta herrien auto determinazioa bat datoz. Herria auto determinatzeko subirano behar du izan. Geure herriak bere auto erabakia egina du, herria izatea aspaldian erabaki eta horretarako indar ezberdinak bildu baitzituen, herria eratuz.

Herria = Subiranoa = Auto determinazioa = Askatasuna

Inperialismoa = Menpekota = Dependentsia = Esklabutasuna

Herria subirano denez ez dugu beste boteririk geure gainetik onartzen. Geure borondatez, noski. Geuk geure boterearekiko zelan joka badakigu. Helburua boterea hobeto antolatuz eta estrategia egokiaz baliatuz herria indartzea da. Edota indar horiek ondo erabiliz boterea erakundetuz, Estatu eratzeko geure azken xedea. Geuk geure subiranotasunetik eratorritako erakundeak eta legeak baino ez ditugu onartzen. Herri boterea subirano da, eta horrek zera adierazten du: herri barne indarrek, erakundeek, alderdiek, elkarteek, herrikideek...herri subiranotasuna osatzen eta horren arabera jokatzeko dutela.

Herrikideak, herritarrak, elkarteak...., hau da, barne herri osaketara begiratuz gero, subiranoak gara ez bairik gabe. Baina ondo dakigun bezala, geure eraginkortasuna neurri batean horretara mugatzen da, ez baikara zapaltzen gaituzten inperialistei aurre egiteko gai. Beraz, inperialismoarekiko ez gara subiranoak, beste estatuarekiko ere ez. Benetako subiranotasuna, kanpora begira noski, inperialistetatik libratzen garenean lortuko dugu. Geure

indarrak bide horretan jarri behar ditugu. Geure ben- benetako subiranotasuna, bakarrik, beste herri eta estatuen parean jarriz lortu ahal izango dugu. Zapaltzen gaituzten inperialisten bukaera ezinbestekoa dugu, beraz.

Subiranotasuna ziurtatzeko geure Estatu berreskuratu behar dugu. Horrela baino ez baikara beste estatuetik parekatzen. Inperialistek ezartzen dizkiguten erakundeak, legeak eta abar geure borondatez behintzat, indarraren halaberrez ez bada, ez ditugu onartuko, alegia. Kanpo indarra, legeak, morala..., hau da, inposaketa guztiak uxatu behar ditugu, geurea den guztia berriz bete. Horrela bakarrik, ahal izango dugu gauzatu eta garatu geure subiranotasuna. Geure subiranotasuna da geuk onartu eta onartuko dugun botere bakarra. Ez dugu onartuko ezer geure subiranotasunetik ez bada eratorria. Herritarrak, alderdiak, erakundeak... geure subiranotasunean bakarrik dute esanahia. Geure betekizunak, eskubideak... hitz batez, legitimitatea bakarrik geure subiranotasunak ematen digu.

GEURE KONSTITUZIA

Subiranotasuna, ordea, inperialistek diote gauza berria dela. Aspaldi honetan sasi jakintsuak horretan ere bere lan zikina burutzen ari dira. Horretarako 1789ko iraultza frantsesa hartu dute eredutzat. "Arrazoiaren - Argiaren mendea" jainkotuz, aurreko sinesmen mendeak uxatuz, denek, AHO BATEZ, inperialistek dagokien ezinezko oreka aldarrikatzen ari dira. Harrigarria benetan! Arrazoiaren omen da, orain, irizpide objektiboa eta unibertuala, jainko berria. Arrazoiari nonbait ez omen zaio muzin egin behar, argibide zurrak baita. Sasi jakintsuak honetan ere, "arrazoiaren" zertarako erabiliko duten begi bistan dago. Diskurtso guzti hori honetan labur daiteke: "herri zapalduok ez dugula lekunik eta zeresanik eratu eta eratzeko ari diren 'arrazoiaren gidatutako' inperialismoa nagusi den mundu honetan". Garbi ikusten da, arrazoiaren zertarako erabiltzen den, hau da, inperialistek erabiltzeko "arrazoiaren" zetan datzan. Geuk, bestalde, arrazoiaren erabiltzeko gaitasuna ere badugu, eta geure arrazoiaren berriz aurkako ondorioetara eramanez gaitu. Hain zuzen, arrazoiaren bidez tresna objektiboa eta neutroa da; aldiz, norbaitek erabiliz gero, nahi dena edota, kasu honetan, inperialisten interesak defendatzeko tresna ezin hobea gerta daiteke. Garbi dago, arrazoiaren erabiltzeko dagoela, eta "erabili" egiten dela. Denon tresna da, baina bakoitzak bere interesak defendatzeko noski, beraz arrazoiaren gidatutako mundu hori sortzea, ezinezkoa da ez baikara arrazoi hutsa, zerbait konplexuagoak baizik. Interesak eta helburuak daude jokoan, arrazoiaren geure alde ikusten dugu, indarra berriz falta, geure arrazoi hori defendatzeko.

Inperialistek diote subiranotasun nazionala eurek burutu duten liberalismo konstituzionalak ekarri duela. Bide batez, herria izatea eta nazio subiranotasuna euren bakarrik dagoela. Ilustrazio garaia baino lehen ez omen zen herririk, ez giza- talderik existitzen, herriak sortzeko omen zeuden, hau da, ez ziren existitzen. Artean, indibiduoak bakarrik omen zeuden, ez dakigu ordea zelakoak ziren. Gauza bitxia, harrigarria benetan!. Herriak, estatuak, inperioak existitzen ez ziren bitartean, indibiduo abstraktuak, berriz, benetako existentzia zuen. Ez hori bakarrik, hori nonbait gutxitxo iruditzen, eta indibiduo horiek ez dakigu zerk edo nork eraginda konstituzioa eratu zuten. Inperialistek hari berari helduz esango dute, konstituzioak existentzia eta subiranotasuna eman diela. Konstituzioa bitarteko,

berriz, inperialismoa ezkutatu nahi dute. Hori horrela, diskurtso horrek azalpen argi bat eskatzen du eta ondorengo agerpenak hori du helburu.

Diskurtso inperialistaren aurka, konstituzioa zer den esatea, ezinbesteko abiapuntu suertatzen zaigu. Lehenengo eta behin, konstituzioa liberalismoarekin batera ez dela sortu esan beharra dago. Liberalismoak konstituzioa idatzia ekarri badu ere, horrek aurreko konstituzioei balio edo zentzu handiagoa eman izana ere eztabaidagarria da. Ohiturazko zuzenbidea, Ingalaterra eta geure herria, besteak beste, lekuko adierazgarriak dira. Hasiera batean, behintzat, inperialistak horrela uste badute ere, idatzia izateak ez du bestelako pisurik.

Hominizazioan eta bereziki humanizazioan ematen diren eraketa sozialak, ordea, geure irudiko adierazgarriak dira. Hominidoen eta gizakien bizitza taldean, taldekide izanik, hau da, elkar hartuz, eboluzioan sortutako erronkei erantzuna emateko, aukera paregabea eta bakarra izan dugu. Tribuak, klanak, leinuak, herriak, estatuak, nazioak, inperioak... honela, horrela edo hala deitu, beti halabeharrez gainera, bizitzeko ezagutu izan eta egon den era bakarra gizataldeak izan dira. Gizakioi, beraz, herrikide edo gizartekide ez izatea pentsaezina egiten zaigu. Konstituzioa "constituere" hitzetik dator eta horrek konstituitu nahi du esan, eta begira noizkoak diren aipu ditugun gizatalde horiek, noiztik hasi ziren konstituitzen.

Gizataldeek, herriek humanizazioaren hasiera hasieratik euren konstituzioa osatuta izan dute. Hain zuzen, konstituzioak herria behar du konstituitzeko eta; era berean, herriak konstituzioa osatzeko. Halaber, herria konstituitzeak indar ezberdinak indar batean eratu, bildu eta osatu beharra eskatzen du. Unitate politikoak horrela sortu izan dira. Barne indarrak batzean eratzen da gizataldea, eta horri konstituitzea deritzo. Herria botere konstituziogilearen titularra izatean, hau da, konstituitzean konstituzioa eratzen da, hau da, konstituzioa herriaren eratzailea dela ere esan genezake.

Herriek historian zehar izan dituzten konstituzio ezberdinak herriaren funtsa edo fundamentua zein den garbi erakusten dute. Halabeharrez, herriek bere premiak asetu ahal izateko, naturaren aurka jardun beharra izan dute. Gainera, zenbaitetan, aldameneko herriak arerio handienak izatera ailegatu dira. Hain zuzen, gizarteek hasi harrapari izatetik, ondoren ehiza, nekazaritza, abere hazkuntza, zeramika lana, merkataritza, eskulangintza, industria... eta horrelako zereginen bidez euren kultura eta zibilizazioa garatu izan dute. Eta, aldi berean, herri barne botereak ere aldatuz joan dira; esate baterako, gaurko banketxeak, industria, proletalgora, burgesia, ejertzitza eta abar orain dela bostehun edo mila urte ez ziren inolaz botere eta izanez gero ere oso ahulak. Horren harian, beraz, barne botereak aldatzean konstituzioa ere aldatu beharrean aurkitu da; eta hala, seguruenik, barne botere berriei konstituzio berriak erantzun ahal izan die.

Konstituzio horien berri, idatziz behintzat, gehienetan ez da jaso, eta egin denean garaiko premiak hala eskatuta idatzi dira. Geure herriaren konstituzioa eta gidaritza foruak, -ohitura eta usadioak-, izan dira, eta horiek foru idatzian oso berandu arte ez dira jaso. Nafarroako erreinuan, esate baterako; antzinako foruak, Foru Zaharreko -Obanosko zaldunek eta Errege Theobaldok sinatutako paktua- barne, Hiri Foruak ... Foru Orokorrean bilduak izan

ziren. Horrelakoa, eta ez bakarra, izan da geure benetako sistema konstituzionala. Geure konstituzio idatzia eta formala, hain zuzen. Benetakoa, ordea, konstituzio erreala da, botere eragileak oinarritzat hartzen duena. Formala eta materiala, bata bestearen gainean eraikia, alegia. Ondorengo konstituzio liberalekin, ezbairik gabe, ezberdintasun handirik gabe alderatu daitekeena, hain zuzen.

Egia esan, ordea, konstituzio formala inperialistek inperialismoa estaltzeko erabiltzen dute. Pentsarazi nahi digute konstituzio formalak berez baduela nolabaiteko formula bat, magikoa noski, arazoak eta zapalkuntzak desagertarazten dituena. Inperialisten mozorroa, alegia, konstituzio materiala aintzat eta duen garrantzia ez ematean datza. Fernando Lassalle-k zihoen bezala, konstituzioa herrian dauden benetako botere eragileek elkar batzearen emaitza da. Ondorioz, egiazki formala izateko, sistema konstituzionalak herriko indar sozial eta politikoen nahiak eta helburuak agertu behar ditu. Hori horrela eginez gero, inperialismoa agerian litzateke. Hori ere ez da oraingoa, eta konstituzioen bereizketa aspalditik formulatua izan da. Lassalle-k, hain zuzen, bi eratako konstituzio daudela dio: erreala eta formala. Lehenengoa eraginkorra da, benetan balio duena, barne botereek eragiten duten isla zuzena baita. Bigarrena, berriz, paperezko orri bat baino ezta. Egiazki konstituzio formala izateko konstituzio materialarekin bat etorri behar du. Horren ezean, inperialismoaren moldaketa formala, hau da, iruzurra egin behar.

Konstituzio ederrak, aurrerakoiak... barnetik berriz ustelak direnak topatu al daitezke. Espainia eta Frantziako inperioen konstituzioak formalki itxurazkoak izatera ere ez dira ailegutzen. Alderdi "abertzaleek" konstituzio formalari dagokionez, behintzat, itxura eman nahian dabilta. Horrela jokatzuz, pentsarazi nahi digute, nahiz eta azkeneko estatutuarekin gertatu dena begi bistan eduki, konstituzio materiala, -benetan bizi duguna- alda daitekeela. Estatutua estalki bat baino ez da izan, inperialismoa estaltzeko ere balio izan ez duena.

Inperialistek ejertzitoan oinarritutako konstituzioa sakratu egin dute. Nahiz eta artikulua bat edo beste aldatu, horrek ez gaitu inperialisten esku mendetik libratzen. Estalki hobeagoak konstituzio erreala hobeto estaltzeko baino ez du balio, konstituzio materialak hala behartuz ez bada behintzat. Egia gordina, gordinak baitira etsaiak. Inperialistek eta "abertzaleek" kontziente edo ez, diskurtso konstituzionala, unibertsala, ilustratua... menpekotasuna eusteko baino ez dute erabiliko. Ez gaitezen gu ba tranpa horretan erori. Has gaitezen ba, bakoitza bere lekuan jartzen eta horrelakoei ez diezaiegun inolaz ere geurean leku eman.

Geure demokrazian herria soilik izan daiteke botere konstituziogilea. Demokrazia herriaren boterea da, hau da, bere biolentzia eta indarra. Herria benetako konstituzioa da, konstituzio formala bertatik dario.

HERRIA = BOTEREA = KONSTITUZIOA = DEMOKRAZIA = ASKATASUNA